

II - ARABAKO LURRALDE  
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## LAUDIOKO UDALA

**Ebazpenaren laburpena, 2024ko abuztuaren 2koa, Tokiko Gobernu Batzarrarena, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan diharduten irabazi-asmorik gabeko erakunde eta/edo elkar-  
teentzako 2024ko lehia liberako dirulaguntzetarako deialdia egiten duena**

BDNS(Identif.): 778996.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazio nalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convo-catoria/778996>).

**Lehena. Onuradunak**

• “Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan Laudioko udalerrian jarduten duten irabazi-asmorik gabeko elkar-teentzako dirulaguntzak” jaso ahal izango dituzte berdintasunaren arloan jarduerak egiten dituzten elkar-teek.

Ezingo dira onuradun izan Dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantzan edo Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean (azaroaren 17ko 38/2003 Legea) baztertzeko arrazoiren bat duten pertsonak edo erakundeak.

Nolanahi ere, irabazi-asmorik gabeko erakundeek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan izatea eta jarduera osoa edo zati bat Laudioko udalerrian egitea.
- Legez eraturata eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkar-teen eta Erakunde-en Erregistroan inskribaturata egotea.
- Laudioko Elkar-teen Udal Erregistroan inskribaturata egotea.
- Estatutuetan jasota edukitzea irabazi-asmorik gabeko erakunde edo elkar-te bat dela.
- Programak eta aurrekontuak botere publikoen kontrolpean jartzea.
- Barne-demokrazia bermatzea, bai gobernu-organoen osaeran, bai funtzionamenduan.
- Ezin izango dira aurkeztu erakunde, entitate edo elkar-teak, baldin eta, beren estatutuetan jasota dagoenez, dirulaguntzaren xedearekin zerikusirik ez badute.

**Bigarrena. Helburua**

Deialdi honen xedea da Laudioko Udalak Zeharkako Politiken Arloaren bidez irabazi-asmorik gabeko erakunde eta elkar-teei emandako dirulaguntzak ematea, norgehiagoka-erregimenean. Jarduera eta/edo esku-hartze horiek emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna bultzatzeko programak eta/edo jarduerak gauzatzera bideratu beharko dira, Laudioko udalerrian egiten direnak edo udalerrarentzat interesgarriak direnak.

**Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Laudioko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2024ko abuztuaren 2ko Erabakiaren bidez onartuak.

**Laugarrena. Zenbatekoa**

Zuzkidura ekonomikoa 10.100,00 eurokoa da guztira, eta gastua babesten duen aurrekontu-aplikazioa honako hau da:

10.100,00 euro: 0203 2317 48100, Berdintasunerako elkarreentzako dirulaguntzak.

**Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea**

Hogei egun balidun, ALHAOn argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Laudio, 2024ko abuztuaren 2a

*Alkate-udalburua*

*AINIZE GASTAKA MARTINEZ*